



tolosaldeko
ataria

Ezkontza gehigarria

2019-04-17
107.6 fm
www.ataria.eus



HITZORDURIK — — BEREZIENA

Ezkontzak errituz beteta egon ohi dira, eta erritu guzti horiek ez dira ezkontza egunera mugatzen. Aurretik lotu behar dira xehetasun guztiak. Zeremonia bera, eta zeremonia egingo den tokia; loreak; emaztegai eta senargaien jantziak, orrazkera, makillajea eta bitxiak; bazkari edo afariko menua eta ondorengo festa; eztei bidaia eta gehiago aukeratu behar dira.

Ezkontza ez da egunean bertan hasten, eta ezta bukatzen ere. Ezkongaiek hilabeteak ematen dituzte egun berezi hori antolatzen eta bere egiten. Hori baita gakoa, bikotearentzat bizi guztirako kuttun izango den egun horretako xehetasun guztiak lotu, eta berezi egitea.

Hamaika aukera daude ezkontza bat goitik behe-
ra antolatzeko, eta aukera horietako asko eskualdean bertan daude. Lorezaintzan, bitxigintzan, edergintzan edota ostalaritzan aritzen diren hamaika profesional daude Tolosaldean eta merezi du horiengana jotzea, amestutako ezkontza hori antolatzen laguntzeko proposak izan baitaitezke.

Ondorengo orrietan profesional horietako batzuk topatuko dituzu irakurle; buruan duzun hori egi bihurtzen edota horren argi ez duzun hori diseinatzen lagunduko dizute, aurreko esperientzia guztiek emandako eskarmentua zure esku utziko dute, berezia den egun hori, are bereziago egiteko.

Testuak: Irati Urdalleta Lete. **Argazkiak:** Irati Urdalleta Lete, Heu&Neu, Segore Etxe Berri, Shuyana, Onditz edergintza, Arri Studioa, Garazi loradenda, Ekotalo, Cid bitxi denda eta Mira Bidaiek.



ASTEAZKENA, 2019KO APIRILAK 17

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818.publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoeta: 687 410 022.

anoeta@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



01 02

SEGRE
ETXE BERRI

HEU&NEU



Helbidea: Muñogain kalea, 4, Baliarrain. **Telefonoa:** 651 70 76 01
Facebook: Heu&neu **Instagram:** heu_neu **Webgunea:** www.heu-neu.com

—TRADIZIOA —LEKU —PAREGABEAN



Helbidea: Santa Marina auzoa, Albiztur. **Telefonoa:** 943 58 09 76 / 610 46 07 51
Webgunea: www.segore.com

Albizturgo Santa Marina auzoan dago Segore Etxe Berri jatetxea. Bertan daramatza Nagore Garmendiak 25 urte eta 10 gehiago ondoan zegoen Segore Etxen.

Aurrean duten zelai handia aproposa da ezkontzetarako. «Hemen garrantzitsuena janaria eta kokalekua dira», dio Garmendiak. Izan ere, Segore Etxe Berrin ondo jaten da, leku lasai batean egoteko aukera ematen du eta ordutegiarekin ere ez dira zorrotzak. «Bere ezkontza prezio egoki batean, ondo janez eta leku lasai batean egin nahi duenak hemen badauka aukera».

Hori da, hain zuzen ere, besteengandik bereizten dituen. Janari tradizionala ematen dute, nahiz eta plater pixka bat bereziagoak ere badituzten; kantitate handiak, eta prezio eta kalitate onekoak. Garmendiaren hitzetan, hurrekin joateko ere leku oso ona da eta jolasleku bat ere badauka, gainera: «Jende asko umeekin etortzen da eta jolasean uzten dituzte, kotxerik ez dagoenez ez dagoelako arriskurik».

Ezkontzetan lan egin arren, ez dira horretara mugatzen. «Ezkontzez gain, familia bazkariak, jaunartzeak, enpresetako bazkariak... ematen ditugu. Gainera, taberna ere badugu eta ogitarteak eta askotariko platerak ere eskaintzen ditugu». Denetarik egiten dute, beraz, Segore Etxe Berrin.

—EZKONTZA —PERTSONALIZATUAK

Heu&Neu ezkontza zerbitzuak eta ekitaldi pribatuak antolatzen dituen lantalde bat da. 2017an Agurtzane Garmendiak bideratuta hasi ziren proiektu honekin. Alde batetik, ezkontza eta ekitaldien kudeaketaz arduratzen da Garmendia. Hau da, ezkongai edo bezeroak behar dituen zerbitzu eta beharrei erantzuten saiatzen dira, dekoraziotik hasi eta lore, bideo, argazki, autobus zerbitzu eta musikara bitarte. Bestalde, Baliarrainen dagoen Lopetedi Jauregiko espazioa eskaintzen dute eta eraikina behararen arabera alokatzen dute. «Batzuk solairu bakarra erabiltzen dute, beste batzuk bi eta badira eraikin guztia alokatzen dutenak ere».

Zerbitzua eskaintzeko hornitzaile eta kolaboratzaileak dituzte eta elkarlanean ekitaldi bakoitza neurrira egiten saiatzen dira. Hori baita besteengandik bereizten dituen: pertsonalizazioa.

Beraien proposamen gastronomikoa ere zabala da. «Saiatzen naiz Tolosaldeko sukaldari eta catering zerbitzuak eskaintzen, bertako eta garaiko produktuak erabili ahal izateko eta, besteak beste, Tolosako AMA tabernako gazteekin, Roberto Ruiz sukaldariarekin eta Lurlan kooperatibakoekin egin dugu lan».

Agurtzane Garmendiak ezkontzeko asmoa duten bikoteak, edota ospakizun bereziak egin nahi dituzten familia, lagun eta enpresak animatu nahi ditu konpromisorik gabe Lopetedi Jauregia ikustera joatera. «Gu saiatzen gara beraien aurrekontu eta beharren arabera festatxoa eskaintzen».

SHUYANA



Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 1, behe, Tolosa — Telefonoa: 943 96 89 93
Webgunea: www.onditz.eus



Helbidea: Eskolapioetako Loraregiak, 3, Tolosa. — Telefonoa: 943 67 14 68
Facebook: Shuyana — Webgunea: www.shuyana.com

KALITATEZKO — TRATAMENDUAK —

2018ko apiriletik ari da lanean Onditz Aiestaran Onditz estetika zentroan. Bertan ezkontzetarako tratamenduak egiten ditu, baita bestelakoak ere. Ezkontzetarako, gehienbat, ezkongaiak hurbiltzen zaizkio, baina baita gonbidatuak ere.

Ezkongaiak hilabete batzuk lehenago joaten zaizkio eta aurpegi garbiketa egiten dute. Bi edo hiru egun lehenago, berriz, *flash* tratamendu bat egiten die, hau da, esfoliazioa eta masajea ematen dizkie azala hobeto sentitu dezaten. Azkenik, egunean bertan, makillatu egiten ditu. Horrez gain, masaje erlaxagarriak ere ematen dizkie, ezkontzaren prestakuntzak sortzen dituen urduritasunak uxatu eta deskonektatzeko. Manikurak nahiz pedikurak ere egiten ditu.

Onditzek ez du ezkontzetarako soilik lan egiten. «Tratamendu hauek edozeini etortzen zaizkio ondo», dio. Depilazioak, solarium saioak, gorputzeko esfoliazioak, zelulitisaren aurkako tratamenduak... ere eskaintzen ditu. Gehienbat, garai honetan hasten dira bezeroak horrelako tratamenduak eskatzen. «Gorputza agerian eramaten hasten garen garaia da», dio. Horiek garrantzitsuak iruditzen zaizkio Aiestarani: «Zaintzen duzuna eta egiten duzuna nabaritu egiten da». Gaineratu du garrantzitsua dela eskaintzen den zerbitzua kalitatezkoa izatea eta jendea eraso sentitzea.

FISIKOAZ — HARATAGO —

Miren Ibarzabal eta Inmakulada Esnaolak 28 urte inguru daramatzate Shuyana zentroan. Orduetik egiten dute lan ezkongaiarekin, amabixiekin edo ezkontzetako gonbidatuekin. Gizonak ere gero eta gehiago animatzen zaizkiela diote.

Shuyanaren iritziz, estetika tratamenduak garrantzitsuak dira ezkontzetan. Izan ere, egun horretan ezkongaiak ondo egon nahi dute, dena ederki ateratzeko: «Argazki polit batzuk edukitzeko, makillaje polita izateko... azala prestatu behar da. Azala organo garrantzitsu bat da eta nola gauden erakusten du». Ondorengo egunetarako ere beharrezkoa da horrelako tratamenduak egitea: «Jendea oportetara joaten da eta garrantzitsua da azala prestatzea eta esfoliatzea. Komeni da ere azala ondo hidratatzea».

Diotenez, gehien aurpegiko tratamenduak eskatzen dizkiete, baina eskuetako eta hanketako tratamenduek ere arrakasta dute, eta baita gorputzekoak ere. Fisikotik harago doazen tratamenduak dituzte Shuyan. «Daukagun guztia hobetzen laguntzen digute, baina ez alde fisikotik bakarrik, baita energetikotik eta emozionaletik ere». Horrek bereizten ditu besteengandik. «Zu ondo bazaude, zure azalak ere hori erakusten du», diote.

Azkenaldian, modan jarri da ezkongaiari tratamenduak oparitzea. «Gorputzeko edo aurpegiko tratamenduak nahiz terapia erlaxagarriak oparitzen dizkiete, ezkontza egunean lasai egotea», esan dute.

05

ARRI
STUDIOA

Helbidea: Errementari kalea, 44, Tolosa. — Telefonoa: 643 67 17 17 — Facebook: @arristudioa
Instagram: @arristudioa — Webgunea: www.arristudioa.com

ESANAHIA — DUTEN —
ARGAZKIAK

Duela bost urte inguru hasi ziren Arri Studioko neskak ezkontze-tako argazkiak ateratzen. Orain, argazkiez gain, bideogintza eta diseinua ere eskaintzen dituzte. Naturaltasuna da berain ezaugarri nagusietako bat eta bezeroaren izaera eta beharretara egokitzten dira. Egiten duten lana gustuko dutenaren seinale.

Ezkontzen aurretik egiten dituzte sesioak, baita egunean bertan ere, ile apaindegitik hasi eta dantzaraino. Aurreko sesio horrek familiaren eta ezkongaien historia ezagutzeko balio die, eta horrela, badakite zer den garrantzitsuen. Bikoteak nahi duenera egokitzen dira eta ez dituzte bi lan berdin egiten: «Lortzen dugu argazkigintza desberdinak egin ahal izatea, protagonisten izaeraren arabera bikote bakoitzean enfokaturik». Gainera, diseinuan ere adituak izanda, lortzen duten produktua desberdina da.

Ezkontzetan eskaintzen dutena garrantzitsua iruditzen zaie, baina ez hainbeste momenturako, etorkizunerako baizik. Oroitzapen horiek gordeta edukitzeko argazkiak eta bideoak artxibo digitalean ematen dizkiete bikoteei, eta, gainera, argazkiak albumean nahiz webgunean izan ditzakete. Azken aukera horretarako bikoteak erabiltzaile eta pasahitza izaten ditu, eta horrela, ezkongaien nahi dutenek ikusi ditzakete argazkiak.

Arri Studioan haurdunaldien, jaioberrien, familien, kongresuen... argazkiak ere ateratzen dituzte.

06

GARAIZ
LORADENDA

Helbidea: Ernio Bidea, 1, behe, Zizurkil. — Telefonoa: 943 69 34 08/678 26 59 89
Facebook: Garazi Loradenda

— FORMAZIOAREN —
— GARRANTZIA —

Duela hamabost urte hasi zen Garazi Dorronsoro lan honetan eta jarraitzeko asmoa dauka. Denetarik egiten du: oparietarako elementuak, lore lehorrak nahiz naturalak tratatu, lore sortak... Jendea zerbait desberdinaren bila etortzen zaiola dio, berrikuntzak gustuko dituztelako.

Garrantzia berezia ematen dio formazioari: «Sortzen diren ikastaro gehienak egiten saiatzen naiz eta jendeak hori asko baloratzen du». Hain justu, oraintxe egin berri du ezkontzetarako ikastaro bat.

Ezkontzetan lan dezente egiten du eta pertsonalizazioari garrantzia handia ematen dio, gertutasun hori delako komertzio txikiak duen abantaila handienetako bat. «Galderak egiten dizkiet beraien estiloa zein den jakiteko. Bikoteak oso desberdinak izan baitaitezke», azaldu du. Ezkontzako lekura bertara joaten da, eta behin lekua ikusita, ezkongarekin hitz egin eta dekorazioa erabakitzen dute.

Hileta koroak, lore-zentroak zein sortak egiten dituzte, eta jaiotzetan, urteurrenetan, zilarrezko edo urrezko ezteietan, nahiz jaietxeak eta eszenatokiak apaintzen aritzen dira. «Niri esaten badidate zerbait nahi dutela inoiz ez dut esango ezetz, aurrena saiatu egingo naiz». Bezeroek konfiantza handia dute berarengan: «Askotan esaten didate nire esku uzten dutela, badakitela-ko polita geratuko dela».

07

EkOTALO



Helbidea: Arana Bailara, 16, Alkiza.

Telefona: 685 75 29 87

Facebook: Eko Talo

Instagram: ekotaloak

TRADIZIOA

BERRITUZ

Tradizioz taloa hirugihar edo txistorrarekin jan izan bada ere, Julen Altzelaik hori aldatzea erabaki du Ekotalo-ren bidez. Taloak bakailaoarekin, piperrekin nahi barazkiekin egiten ditu

Pilotaria zen garaitik dago erlazionatuta Julen Altzelai taloarekin. «Batzuetan, partida bat jolastera joaten nintzenean taloa jaten nuen», dio. Pilota alde batera utzi zuenean ere taloaren munduarekin lotuta jarraitzea erabaki zuen. Bere buruari galdetzen zion taloa zergatik jaten ote den txistorrarekin, eta beste zerbait asmatu beharra zeukala pentsatu zuen. Horrela, 2015 amaieran sartu zen talo munduan eta 2016an etorri zitzaizen lehenengo proposamena ezkontza batean parte hartzeko. «Azurmendi jatetxean egin genuen eta jendea oso gustura geratu zen», baieztatu du Altzelaik.

Gaur egun, hiru ezkontza motatan egiten dute lan. Alde batetik, ezkontza banketearen ondoren afariak ematen dituzte. Hor talo txikiak jartzen dituzte eta jendeak nahi adina jan ditzake, dantzaldiak irauten duen bitartean. Beste aldetik, bazkarien aurretik ere egiten dute lan eta hor gonbidatu bakoitzari pare bat pintxo ematen dizkiote. Azkenik, Altzelaiari gehien gustatzen zaizkionak daude: ezkontza tematikoak. Hor azoka moduko bat antolatzen dute hainbat posturekin, eta horietan edateko eta jateko desberdinak egoten dira: sagardoa txotxean, ardo bereziak, gaztak, pintxo hotzak, kroketak... «Horrelako ezkontzak bultzatzen ditugu, batez ere, politagoa iruditzen zaigulako».

Ekotalo-ren taloak ikusitakoan, gonbidatuak «harrituta» geratzen dira. «Alde batetik, harrituta geratzen dira ezkontza batean taloak ikusita eta, beste aldetik, barruan sartzen dizkiogun osagaiak ikusita ere harritzen dira. Hain zuzen ere, 15 osagai inguru dauzkate, horien artean daude barazkiak, labean egindako piperrak, otarraintxoak edo bakailaoa. Azkena sartu dute-na, esaterako, oilaskoa tenperatura baxuan eginda shiitake onddoekin izan

da. «Gauza desberdinak dauzkagu eta hori ikusten dutenean jendea harrituta geratzen da eta dastatzen dutenean are gehiago», dio alkizarrak. Ateratzen dituzten berrikuntzak arrakastatsuak izaten direla ere esan du Julen Altzelaik.

Ezkontzetan ez ezik, beste leku batzuetan ere egiten dute lan: «Ezkontzetako herrira ere eraman nahi dugu edozeinek probatzeko». Horretarako, azoketan, eta jaietan egiten dute lan eta dastatzeak ere egiten dituzte, esaterako, garagardo edo txakolin azoketan. Horrez gain, tailerrak ere antolatzen dituzte ikastetxe edota azoketan. Ekotalo-ren beste bereizgarrietako bat da artoa labean sartzea. «Horrela, alde batetik, artoak dauzkan harrak hiltzen ditugu, eta, beste aldetik, almidoia kozinatzen da eta urdailean ez du minik ematen», esan du.

Artoa lortzeko erabiltzen dituzten lurretan dago azken bereizgarria. «Lur propioak dauzkagu ekologikoan alta emanda. Transgenikoen eta toxikoen probak egiten dizkigute eta, urtero, ezezkoa ateratzen da», dio Altzelaik. Gainera, Euskal Herriko hainbat baserritarri ere erosten diote artoa. «Hori da guk lortu nahi duguna, bertako produktu batekin lan egin eta zigilu ekologikoa erabili ahal izatea».

«Ezkontzera doan jendeari esango nioke nirekin kontaktatzeko dastatze bat antolatu ahal izateko», dio Altzelaik. «Ezkongaiak beraien gonbidatuak harritu nahi badituzte aukera hau oso ona da, ez izan zalantzarik», gaineratu du alkizarrak. Ekotalo-rekin tradizioa eta berrikuntza uztartzen dira mokadu bakar batean.



Helbidea: Foruen Etorbidea, 5, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 27 12

Facebook: CID-Relojería y Joyería

BIZI

OSORAKO

BITXIAK

Cid bitxi dendan aurrekontu eta gustu guztietara egokitzen diren bitxiak eskaintzen dituzte ezkontzetarako

Mari Sol eta Mari Luz Cid bigarren belaunaldia dira Cid bitxi dendan. Lehenengo, beraien gurasoek ireki zuten denda, Villabonan, 1963. urtean, eta 1981. urtean joan ziren Tolosara.

Ezkontza eratzunei merezi duten garrantzia eman nahi diete Cid ahizpek: «Ezkontza eratzuna da ezkontza batetik egunero bizi osoan zurekin eramango duzun gauza bakarra».

Emaztegaiak, eraztunaz gain, beste hainbat osagarri ere eraman behar ditu. «Emaztegaiak belarritakoak eramatea ere oso garrantzitsua da». Horretarako, hainbat xehetasun hartzen dituzte kontuan, hala nola, eramango duten orrazkera, aurpegiaren forma, lepoaren luzera, soinekoaren eskotea... Batzuetan, lepoko bat ere jarri behar izaten zaie, eta eskumuturrekoa ere janzten dute lore sorta eraman behar duten esku berean. Konpromiso eratzuna ere esku horretan jartzen zaie. Senargaiak, berriz, erlojua behar izaten du. «Oso garrantzitsuak dira bitxiak ezkontza batean, sortzen diren sentimenduak eta emozioak gordetzen dituztelako», dio Mari Luz Cidek.

Cid bitxi dendan beti saiatzen dira merkatuaren joerak ezagutzen eta momentuko bitxiak nahiz tradizionalak edukitzen dituzte. «Gero eta gehiago jotzen da produktu atemporaletara, beti izango baitira politak», azaldu dute.

Daukan aukera zabalak bereizten du Cid bitxi denda gainontzekoengandik. Izan ere, urrearen gainetik dagoen material bat ere badaukate: platinoa. Horren bidez, maila altuagoko bitxiak egiten dituzte. Gainera, bezero bakoitzaren gustu eta aurrekontura egokitzen dira eta bitxiak bakoitzaren neurrira egiten dituzte. «Urrea horia, zuria edo arrosa izan daiteke; testura asko dauzkagu eta hainbat forma, zabalera, altuera eta marrazki», azaldu dute. Bitxigintzan erabiltzen diren material guztiak erabiltzen dituzte, baxuenetik hasi eta altueneraino. «Bakoitzaren beharretara egokitzen gara», diote.

«Oso informatuta eta prestatuta gaude eta ezkontzak gustatzen zaizkigu», diote Cid ahizpek. Horrela, ez dituzte bitxiak saldu bakarrik egiten, baizik eta gonbidatuei nahiz ezkongaei aholkuak ere ematen dizkiete eta ahal duten guztian laguntzen diete. Ezkongaeiek bizitza osoan gogoratuko diren ezkontza bitxiak erosteko aukera daukate, beraz, Cid bitxi dendan.

09

MIRA BIDAIAK

■ **Helbidea:** Gernikako arbola, 4, Tolosa. ■ **Telefonoa:** 943 53 97 74 ■
■ **Webgunea:** www.mira.eus ■ **Emaila:** info@mira.eus ■ **Facebook:** MIRA Bidaiak ■

■ BAKOITZAREN ■ NEURRIKO ■ BIDAIAK ■

— Bikote bakoitzaren zaletasun eta nahietara egokitzen dira
Mira Bidaiak agentzian —

Turismoa ikasi zuten Myriam Gurrutxagak eta Enara Etxeberriak eta dua urtebete eman zuten Mira Bidaiak irekitzeko pausoa. Gurrutxagak 20 urte daramatza hainbat agentzian lanean eta 16 Etxeberriak.

«Bidaiak garrantzia handia du ezkontzan. Etortzen zaizkigun batzuek esaten digute bidaiarengatik ezkontzen direla. Izan ere, 18 egun ematen dizkizute eta oporrak gehituta hilabetera iritsi daitezke», dio Gurrutxagak. Batzuek ezkontzeko data egin nahi duten bidaiaren arabera ere erabakitzen dute: «Argentinara joan nahi badute, esaterako, onena hemen go neguan joatea da, han uda delako. Beraz, urrian ezkontzen dira».

Denbora eta dirua. Hori da bidaia handi bat egiteko behar diren osagaiak eta egunerokoan falta izaten direnak. Eztei bidaia izaten da horiez gozatzeko aukera. Neurria egindako bidaiak antolatzea gustatzen zaie Mira Bidaiak agentzian: «Katalogoetan paketeak eginda daude. Gu, berriz, bakoitzak nahi duenera egokitzen gara». Gainera, bidaia antolatzeaz gain, bestelako gehigarriak ere lortzen dizkiete. Adibidez, Ameriketako Estatu Batuetako kostara joaten direnean, parke naturaletarako sarrerak erosten dizkiete edo helikopteroan ibiltzeko aukera ematen diete. Bikote bakoitzari egokitutako bidaiak egiteko zein ezaugarri dituzten jakiten saiatzen dira. «Izan ere, ez da berdina Argentinara baleak ikustera joatea edo mendira joatea. Gainera, batzuek garrantzi handia ematen diote hotela hirigunean egoteari. Beste batzuek, berriz, nahiago dute gutxiago ordaindu eta diru horrekin beste zerbait ikusi». Mira Bidaiakei jendea eza gutzen saiatzen dira eta horren arabera bidaiak antolatzen dituzte.

Ezkontzekotako bidaiez gain, bestelako bidaiak ere antolatzen dituzte. «Kotxeak alokatzen ditugu, eta kruzero erreserbak, mendi irteerak, auto-karabana bidaiak edota Jordaniako rutak antolatzen ditugu».

Internetekin konparatuta, hainbat abantaila dituztela iruditzen zaio Gurrutxagari. Batzuek, beste bidaiak Internetez hartzen dituen arren, eztei bidaietan nahiago izaten dute bidaia agentzietara jotzea. «Eztei bidaietan, hainbeste gauza daudenez lotzeko, denbora asko behar da eta nahiago dute guk egitea». Gainera, arazoren bat edukiz gero ere agentziara jotzen dute eta momentuan konpontzen saiatzen dira. Bidaia antolatzerako garaian, bikotearen iritzia ere ezinbestekoa da, emailaz bidaltzen diete informazioa eta beraiek erabakitzen dute zer gustatu zaien eta zer ez, edo zerbait gehitzea nahi duten. Pertsonalizazioa da Mira Bidaiakei ardatza. «Bidaiak antolatzen ditugunean guretzat izango balira bezala egiten dugu».



India: Oso handia da eta mugatu egin beharra dagoela dio Mira Bidaiakei. Barnealdean zirkuitu bat egin daiteke eta kostaldean amaitu. Bestela, Indiatik Nepalera joateko aukera dago eta han *trekking* bat egin.



Islandia autokarabanan: Islandian onena ibilbide bat egitea da. Bertan aire librean dauden termak ikusi daitezke, baita urjauziak ere.



Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko kostaldea: Parke naturalak bisitatzen dira, gehienbat. Ibilbidea San Frantziskon hasi daiteke eta handik Las Vegasera joan eta Route 66 ibilbidea egin. Kostaldean amaitu daiteke bidaia eta denbora edukiz gero, San Diegora jaitsi.



Japonia: Hemen ere zirkuitu bat egin ohi da. Trenez bidaiatzea oso erosoa da, azkarrak direlako. Mira Bidaiakei hemen erosten ditu txartelak eta ibilbide bat antolatzen du.



Tanzania: Safari bat egitea gomendatzen du Mira Bidaiakei, 4x4 ibilgailu batean sartu eta parke naturalak ikusiz. Horrela, animaliez gain, hango jendea nola bizi den ere ikusten da. Bidaia hau Afrikako hondartza batean amaituko litzateke.